



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
José María Michelena Erasun.

2016ko uztailearen 27an, 08:00etan, aparteko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. MENDIKO LANAK.

Gonbidatuak izan ziren 3 enprekin burutu diren negoziazioen emaitzak ikusirik eta Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. “2016ko KANPAINAN ZUBIETAKO U.B.ko BASO LANAK” izeneko agirian dauden lanak esleitzea SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari, B 31 544075 IFK, hamabi mila hirurehun eta laurogeita hamar euro eta berrogeita hamahiru zentimotan (12.390,53 €), gehi BEZa. Lanak, hilabete bateko epean bukatu beharko ditu, hasiera-aktako datatik hasita.

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. M.M.O. izendatzea obrako zuzendari teknikoa.

4. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei eta obrako zuzendariari.

Eta bertzerik ezean, 08:05ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.